

### III. KAPITULUA

## Aniztasunari eman beharreko hezkuntza-erantzunaren neurriak eta laguntzak

### Ebaluazio psikopedagogikoa

[...11. artikuluan, 5-11. puntuetan]

- Ebaluazio psikopedagogikoa **noiz?** Testuinguruaren eta baldintza pertsonal jakin batzuen arteko interakzioaren ondorioz sarbidea, parte-hartzea eta ikaskuntza konprometitzen dituzten oztopoak sortzen direnean eta neurri unibertsalak eta, hala badagokio, osagarriak nahikoak ez direla egiaztatzen denean egingo da.
- Ebaluazio psikopedagogikoa diziplinartekoa, testuinguruaren araberakoa eta elkarlanekoa **izango da**.
- Hezkuntza-orientazioko taldeko profesional kualifikatuek **egingo dute**, ikaslearekin esku-hartzen duen irakasle-taldearekin lankidetzan, eta hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen aholkularitza izango dute.
- Era berean, familiak eta inklusioari laguntzeko beste profesional espezifiko batzuek eta, hala badagokio, esparru sozialeko eta osasunaren esparruko beste eragile batzuek **parte hartuko dute**.
- Ikasleen alde aurreko **baimena** eta berariazko adostasuna beharko dira, edo, adingabeak badira edo beste arrazoi batzuegatik baimena eman ezin badute, gurasoena edo legezko ordezkariena.
- Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuei dagokie ebaluazio psikopedagogikoaren prozesuaren **aholkularitza eta baliozkotzea**, baita hezkuntza-erantzuna egokitzeke hezkuntza-orientazioa ere. Hala badagokio, informazioa eskatu edo eman ahal izango dute bidezkoztat jotzen diren bideen bitartez.
- Ebaluazio psikopedagogikoaren **emaitza** gisa, ikasleak behar dituen neurriak eta laguntzak eta haren jarduketa-plan pertsonalizatua egiteko orientabideak definitzen dira. Plan horretan jasoko da, beharrezkoztat jotzen bada, curriculum-egokitzapen indibidualizatua, kasu bakoitzaren arabera.
- Ebaluazio psikopedagogikoa eta curriculum-egokitzapenak hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren aplikazioetan **erregistratuta** geratuko dira.
- Ebaluazio psikopedagogikoa etapa bakoitzean **eguneratu** beharko da, baita ikaslearen bilakaera pertsonalak eta hezkuntza-bilakaerak eta/edo hezkuntza-testuinguruak eskatzen dutenean ere.
- Ikaslearentzako **eskolatze-proposamen** egokiena barne hartuko du (ebaluazio psikopedagogikoaren arabera, ikasleak hezkuntza-premia bereziak baditu, eta premia horiei testuinguru arruntean inklusioari laguntzeko profesional espezifikoek ezin badiete erantzun).